

Gernikako lotsa-gaiztoa

Alderdi, 269. zk., 1971-11.

Gipuzkoako Unibersidadea gai dela Donostian gertatu den lotsaizun bera jazo da Bizkaian: erriaren aginpiderik ez dutenak bildu eta erriaren izenean itz egin dute Gernikan.

Gezurak gezur bera eman oi du non nai.

Aurretik eta mendez-mende Fueroak zin egitera Gernikara etorri oi izan diren erregeen urren delako Prinzipe au ekarri digute Euskalerrriaren zugaitz aurrera, sartu dute Junta-Etxera eta bere aurrekoek egin izan duten aitormenaren ordeztari batek bezala itz egin digu.

Eta irain au egiteko aukeratua, izan den garaia urrilla izan da, Fueroak itaidekretoz erroetatik ebaki zizkiguten illa.

Oraintsu, azaroan, Unibersidadea dela-ta Gipuzkoan egin berri-berri diguten moduan egin digute Bizkaian joan dan illean: erriaren aginterik ez duten eta biatzarekin izentatuak izan diren batzuk (berak jakingo dute zergatik) izan dira omenaldi dollar au Gernikan bertan eskeintzera joan direnak. Batetik, Madrileko beatzarekin markatuta izan diren oiek ez dute erriaren abotsik eraman; onenean ere bakoitzak berea, bere dollartasuna, erakusteko garaia izan da. Bestetik, berriz, Gernikara etortzeko izan duten deia Euskalerrrikoa ez den eta gure erriak zer ikusirik izan gabe izentatua izan den gobernadore baten aginte uts-utsarekin egiña izan da.

Zer erakutsi diote delako Prinzipe oni Gernikan Gernikako espiriturik sentitzen ez duten oiek?

Juizio au ez du Euzko Alderdi Jeltzaleak emen egin bearririk; erriak berak erakutsi bait du, gaurkoz ixil eta geldik.

Bilbotik-Gernikara arteko bide-zabalak ukuitzen dituen erri guzietan sasi-alkateak bandoak egin arazi zituzten, eta gaiñontzeko izparringi, errati eta telebixta atzaparretan dauzkan mamu aundi orrek egin zituen alegin guziak. Amorebietatik Prinzipeak pasa bear zuten garaian guardiak dendaz-denda ibiliak dira negozioak ixteko deiak egiten, Prinzipea eta bere emaztea erritik pasatzerakoan agur bero bat eman zezatean; baiña gure erriko ikus-gura zebiltzen eta une batzuk ez beste, jende gutxi ikusi zuten Borboiak bidean.

Gernikan oraindik gutxiago.

Aurreko egunetatik Gernika (leen erre gabe geratu zena eta eraiki duten zati berria) ikurrin ori-gorrietatik zintzilikatua zirudien; erriari bide guzietatik deia egin zitzaion, bakoitzari bere dei-txartel dotorea eskuratu ere bai (Joxeba Elosegiri ez), eta eguna iritzi zenean: etxe bakar bateko leio bakarrean agertu zen ori-gorri kolorearen lotsa.

Gaiñontzekoak gizonki, gernikarki, uko egin zioten dei lotsarazleari.

Etorri ziran, bai, Bilboko autobus urdiñak, eta Amorebietan bezala emen ere tabernak eta dendak ixteko "eskaka" ibili ziran, baiña ala eta guttiz ere ez zen Junta-

Etxearen inguruan gizonik bildu; estazio aldean ikusten ziren, bai, Bizkaiko sasi-alkate bakoitzak ekarri zituen kantzejal eta emazteen jantzi dotoreak, oso apañak, baiña gernikarrak bat zekiten (eta Euskal-erri guziak ere bai) anima-gabeko soiñeko oiek gernikarrak ez zirela.

Joxeba Elosegik joaterik ez; kartzelan daukate, lastima.

Orain dela ogeitamar urte pasiak Gernika txetue eta erre zuten berak izandu dira Berriz Gernikan Fuegoak il zituztela gogora asteko jaia antolatuak; baiña ala ere, or, jantzi apañak eta ori-gorri ikurriñak agertu nai izan ez duen errian, dago oraindik indarra.

Eta egiazkoa denez, Joxeba Elozegi piztutako suak argi geiago egingo du saldu oien etxeokak baiño.